

ZUBEROA

IRAGANAREN LEKUKO ISILA

Allande Sokarros gogoan

*Oi Zuberoa
bizitzaren ametsa,
negarra dagit sakonki,
hiri so
nere hatsa duk
bihurtzen auhena,
oi Zuberoa,
zer hintzen eta non hago!*

*Oi Zuberoa
Jose Anjel Irigarai*



Zuberoako dantzariak maskaradan

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zeri-kusia duten makina bat artikulu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Zuberoa (zubereraz, Xiberua edo Xiberoa), Euskal Herriko zazpi herrialdeetako txikiena eta biztanle gutxien dituen lurraldea da. Hiriburua Maule-Lexarre da eta, administratiboki, Frantziako Akitania eskualdeko Pirinio Atlantikoak departamenduko parte da. Tradizioz, hiru eskualdeetan banatuta dago: lur behere lauak nagusi diren Pettarra iparraldean, menditsuagoa eta oihan zabalez jantzirik dagoen Arbaila erdialdean eta Euskal Herriko arroila edo zintzur ikusgarrienak dauden Basabürüa hegoaldean. Azken eskualde honetan goititzen da lurraldeko tontorrik garaiena den Orhi mendia.

Zuberoa, kilometro karratuko Euskal Herriko biztanle-kopuru gutxien dituen lurralde historikoa da. XX. mendean zehar, bertako biztanle asko, Lapurdi aldera, Bearnora edota Frantziako beste hiri handietara joan ziren eta pixkanaka, herriak husten joan dira. Azken urteetan joera aldatu den arren, migrazio mugimendu hauen ondorioz, bertan dagoen biztanleria nahikoa zaharra da. Zuberera, Zuberoan hitz egiten den euskalkiari esaten zaio. Azken mendean, euskarak atzera egin du, beti ere, frantsesaren mesedetan. Pastoralak eta maskaradak dira Zuberoako kultur adierazpen ezagunenak.

Zuberoako natura eta kultura gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu

Lurralde honetan hamaika ibilaldi burutu daitezke eta, horietan guztietan, iraganaren lekuko isilak diren paisaia ikusgarri eta ederrez gozatu ahal izango dugu. Artikulu honetan proposatzen diren zazpi ibilaldiak burutuz gero, Zuberoako natura eta kultura gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu eta, bide batez, gure historiaren pasarteren bat edo beste gogora ekarri. Haitz zorrotzak, baso trinkoak, larre zabalak, muino borobilak, mendi magaletan barreiatutako bordak, haran estu eta amaigabeak, haitzartean amiltzen diren arroiak... naturak modelatu dituen hamaika paisaia eder, naturaz gozatzeko hamaika aukera paregabe.

ARBAILA

Oihanak estaltzen ditu Arbailako mazizoaren bi herenak. Erliebea nahikoa astuna da hemen, baina kare-haitzezko eremuetako higadurak (karstikoa) modu guztiz bitxian landu du.

1 ELHAUDI ETA SAN ANTONI

LUZERA: 12,5 km | DESNIBELA: 658 m
DENBORA: 3 ordu 30'

San Ziprian elizaren ondoan dagoen pilotalekutik abiatuko gara. D-918 errepidea zeharkatu eta, aurreko kaletik aurrera egingo dugu. Lehen bidegurutzean, ezkerreko bidea aukeratuko dugu, eskuinekoa itzultzeko utziko dugu. Marra horiz balizatutako ibilbideak norabide zuzena aukeratzen lagunduko digu. Arroka in etxaldea atzean utzita, margo horiek erakusten diguten bidea eskuinera utzi eta,



ezkerretik, Elhaudi mendiaren magal aldera doan bidea bilatuko dugu.

Elhaudiren iparraldeko hegaletik gora egiten duen bide nabarmena jarraituko dugu. Asfaltozko bidea utzi eta, ezkerretik igotzen den lurrezko bide zabala hartuko dugu. Basotik atera eta, Elhaudi mendiaren iparraldeko hegal zabal eta belartsuan gora egingo dugu. Ehüsako lephora doan bidea utzi eta, ezkerretik ateratzen dena aukeratuko dugu tontorre-raino iristeko. Tontorrean, harrizko gurutzea.

Bere kanpandorre hirukoiztarra, Zuberoako eliza eta kaperetan ohikoa da

Jaitsiera azkar batek, Ehüsako lephora eramango gaitu, Muskilditik datorren bide balizatuarekin berriro bat egiteko. Pistak, San Antoni kaperaraino eramango gaitu, izen bera duen tontorrera. Karlos II.a, (Gaiztua ezizenez ezaguna) errege nafarraren aginduz eraiki zuten kaperak kokaleku honetan, 1835. urtean, Lüküztarren eta Agramondarren leinuen arteko bakearen sinadura ospatzeko. Bere kanpandorre hirukoiztarra, Zuberoako eliza eta kaperetan ohikoa.

Abiapuntura itzultzeko orduan, marra horiz balizatutako bidean barna jaitsiko gara. Hasi-eran, iparraldeko isurialde belartsuan zehar egingo dugu behera, Oxkaxeko mendatetik datorren pistaren paraleloan. Erraz galduko dugu altuera Eiheregi baserri ederrera iristeko. Lurrezko pista, asfaltozko errepidea bihurtzea-



Ahüzkiko aterpe eta jatetxea

rekin batera, leundu egiten da. Herrira sartu aurretik, harrizko gurutzadura ikusiko dugu, hasieran igaro dugun aparkalekutik gertu.

2 AHÜZKIKO MENDIETAN

LUZERA: 7,7 km | DESNIBELA: 448 m
DENBORA: 2 ordu 35'

Paraje eder hauek gertutik ezagutzeko dugun abiapunturik egoki eta ederrena, Ahüzkiko ostatu-jatetxea da. Bertan ikusiko dugun aparkalekutik abiatu eta, mendi aldera zuzentzen den pistan barrena, gertu ikusiko dugu Ahüzkiko üthürri ezaguna. Nahiz eta azterketa zientifikoek ezetz dioten, isurtzen duen urak ahalmen diuretikoak omen ditu bertakoentzat. Txorrotxaren azpian, Pierre Topet Etchaunena izan daitekeen kantu herrikoi ezagun baten lehen estrofa irakur dezakegu: "Bortian Ahüzkiko hur hunak osoki". XIX. mendean ur hauek oso

estimu handia izan zuten eta bertan, bainuetxe bat sortu zuten. Kondaira askoren lekuko izan den iturriari bizkar eman eta, marra horiz balizatutako xendan barrena igotzen hasiko gara. Markak berehala utzi eta, Bohokortea mendiaren tontorrerantz zuzen igotzen hasiko gara bere bizkar leun eta belartsua zeharkatuz. Tontorrek, dorre harritsua den Zaboze eta Arbailako tontorrik garaiena den lhatearekin batera, Elzarreko Ordokia sakonune karstiko handia menderatzen du.

Parez pare ikusiko dugun lhatea mendiarrantz joko dugu segidan. Mendiaren gandarrean zehar, lepora jaitsiko gara. Oso nabarmena eta eroso den xendak lhasteriako muinora eramango gaitu. Altuera galdu eta, aldapa motz eta piko batek igotzen duen zidorretik pagadira gerturatuko gara. Punturik gorenean, haitzen artean ikusgaitz den bideak beste lepo txiki batera eramango gaitu. Ingurune karstikoarekin topo egingo dugu lehen

aldiz eta horrek ibilera zaildu egiten du. Kontu handiz, harri-pilek (cairn) erraztuko digute bide egoki eta zuzena aukeratzen. Basotik atera eta denbora gutxi beharko dugu Arbailako mendirik garaienera iristeko. Ez buzoirik, ezta tontorrean gaudela bestelako artifiziorik, soilik bi harri-pila ikusiko ditugu. Gailurretik, Arbailako mendigunea bere osotasunean ikus dezakegu: Zaboze, Zihiga, Zorzauki, Azküne, Lexagorri, Belhigaña, Beltxu... eta hauen magaletan amiltzen diren baso ederrak.

Ahüzkiko üthürriak isurtzen duen urak ahalmen diuretikoak omen ditu

Abiapuntura itzultzeko, etorritako bidetik atzera egin eta, lhasteriako muinoa inguratu ondoren, Bohokortearen mendean dagoen lepora itzuliko gara. Elzarreko Ordokira jaisten den



eskuinera ateratzen den bidezidorra hartuko dugu. Organbidexkako gailurreriaren azpitik pasatzen den bideak pixkanaka gorantz egiten du eta berehala elkartuko gara Mehatze lepotik jaisten denarekin. Aurrera segituz, Pellüsagaña eta Odeizügaña mendien magalek osatzen duten zirkuan barrena, gertuago ikusiko ditugu Zazpigaña eta Orhi mendia.

Bide eroso jarraituz, "mila konkordun gailurreria" izenez ezaguna den Millagatera iritsiko gara. Aurrera segitu, gandorrera heldu eta parez pare Zazpigañara igotzeko malda bortitzari aurre egingo diogu. Tontorra atzean utzita, Alupiñako atakara helduko gara eta berehala ohartuko gara gandorretik jarraitzea arriskutsua gerta daitekeela. Arriskua saihesteko, xenda hestua hartu, iparraldeko aurpegitik metro batzuk beherantz egin eta segidan berriro gorantz joko dugu. Ataka gañdituta, azken maldari ekingo diogu Kantauri itsasotik etorrira, bi mila metro dituen lehenengo gailurrera heltzeko, Orhira hain zuzen ere. Eta gure mende, Europako mendebaldeko pagadirik handi eta zaharrena den Iratikoa.

Kantauri itsasotik etorrira, bi mila metro dituen lehenengo gailurra da Orhikoa

Abiapuntura itzultzeko, etorritako bidetik atzera egingo dugu Millagaateko leporaino jai-

tsiz. Orhi mendiari bizkarra eman eta lbarrondoa etxolaren gainetik Odeizügañarantz joko dugu. Bizkartze mendia gure ezkerredera dugularik, mendi-gandorrari eutsiko diogu. Murkhuilako lepoa gertu ikusiko dugu, baina errepidera jaitsi beharrean tontor aldera igotzen jarraituko dugu. Denbora gutxi beharko dugu Sensibile lepora jaisteko. Hona iristean, parez pare dugun Pellusegañara igoko gara segidan berriro maldan behera abiatuz. Errepidearen ondora iritsiko gara, baina hau saihestu eta belarra zapalduz Mehatze lepora iritsiko gara.

Lepotik ateratzen den azken aldapari ekingo diogu eta, Organbidexkara heltzean, merezi du Orhi aldera zabaltzen den ikuspegi gozatzea, bertatik primeran ikusten baitira ibilaldi honetan igarotako lekuak eta bideak. Abiapuntura itzultzeko, basoan murgildu eta hau zeharkatzen duen bide-zidorrean zehar berehala helduko gara Bagargietako lepora.

4 MAIDALENA

LUZERA: 6,5 km | DESNIBELA: 460 m
DENBORA: 2 ordu 20'

Zuberoako lurren erdi-erdian, Ühaitza ibaiaren ibilguarekiko paraleloan, mendi-multzo leun eta belartsu multzo txiki bat altxatzen da. Mendilerro txiki honek, iparraldetik hegoalderantz zabaltzean altuera irabazten du, Maidalena tontorra bere puntu gorena izanik.

Orhi Meatze lepotik

pista kontrako norantzan hartuko dugu eta, sigi-saga pare batean abiapuntura helduko gara.

BASABÜRÜA

Zuberoako hegoalde eta ekialdean kokatuta dagoen eskualdea bi zatitan banatzen da. Eskualdearen hegoaldean dagoen orografia oso malkartsua da eta bertan, mendi garaietatik arroiletaraino irristatzen diren lur ikusgarriak ikusiko ditugu.

3 ORHIRA IRATI KO ETXOLETATIK

LUZERA: 18 km | DESNIBELA: 1306 m
DENBORA: 5 ordu 40'

Irati ko etxoletatik abiatu eta Larraine aldera doan errepidean zehar jaisten hasiko gara. Kilometro erdi pasatxo bete ondoren, gure





Maidalenako kapera eta tontorra

Zúztarriko lepotik abiatu bezain fite, errepidea utzi, eta gure ezkerretik marrazten den bide zaharra hartuko dugu. Kilometro bat baino gutxiagoko luzera duen bide zahar honen bukaerara iristean, berriro errepidera aterako gara. Asfaltozko errepidean zehar kilometro bat beteko dugu eta, bihurgune handi batera ailegatzean asfaltoa utzi eta gure ezkerretik zabaltzen den lurrezko pista zabaletik gorantz egingo dugu altuera erraz irabaziz. Maidalenaren oinean dagoen zabaldian, ohikoa da parapentea egiten duen jende andana ikustea. Aurrez aurre dugun ermitarantz joko dugu segidan eta bertara igotzeko belardian marrazten den xenda hartuko dugu. Tontorrean, ermita ezagunaz gain, antena erraldoia eta mahai panoramiko bat ikusiko ditugu. Leku honetatik dagoen panoramika bikaina da, ta-

laia paregabea Zuberoako lurak ez ezik Orhikitik Midi de Bigorreraino marrazten den mendikateen silueta behatzeko.

Ermitan, *Herascortsehe* izeneko jainkoari eskainitako aldare bat omen zen

Antzina Marie Maddalene d'Aranche bezala ezagutua izan zen (1470). Eraikina XV. mendekoa da erromatar aurreko tenplu pagano zahar baten gainean altxatuta, XIX. mendean aldatu eta 1961ean zaharberritu zena. Maidalena erromesak hartzeko lekua zen, Muskildiko San Antoni bezala. Joxe Migel Barandiaranek kontatzen zuenez, ermi-

tan erromatar aldare bat kontserbatzen zen, *Herascortsehe* izeneko jainkoari eskainitako aldare bat omen zena.

Abiapuntura itzultzeko tenorean, ermitari bizkarra eman eta, Iruri eta Atharratzeko lurren mugatik marrazten den xendatik jaisten hasiko gara. Tontorreraino igotzen den errepidea azken aldiz gurutzatu eta zuzen jaisten jarraituko dugu. Lehenik basoan eta gero belaze artean hedatzen den bidetik, azkar galduko dugu altuera. Laster, Atharratzeko lurretan murgilduko gara eta herrira zuzentzen den bide baliztua eskuinera utzita, ezkerretik ateratzen den pistatik egingo dugu aurrera. Bagaüle etxaldearen ondotik igaro eta gero, asfaltozko bide eroak beherantz egiten du



lehen tartean, baina gero aldapan gora segituko dugu abiapunturaino.

5 OLHADÜBIKO ARROILA

LUZERA: 14,1 km | DESNIBELA: 655 m
DENBORA: 4 ordu 40'

Pastoralak pasioz beterik bizi dituen Zube-roako lurretan, Euskal Herriko txokorik basati eta ederrenetariakoak diren Basabürüko zintzur edo arroilak aurkituko ditugu. Santa Graziko eliza erromaniko ezagunetik gertu, Kakueta eta Ehüjarreko zintzurak marrazten dira, aurrerago Olhadübi eta Holtzartekoak. Naturaren indarrek lurrari egindako zauriak.

Logibar izeneko aterpetxearen ondotik abiatuko gara. Ibilbidearen zatirik handienak, GR-10aren bidea jarraitzen du. Olhadoko erreken paraleloan hedatzen den bideak, egurrezko zubitxo bat igaro eta berehala malda igotzeari ekingo diogu. Bustita edo hezea dagoen egunetan kontuz ibili behar, labainkorrira egoten baita eta horregatik, lagungarri gerta daitezkeen heldulekuak daude. Maldaren amaieran, pagaditik atera, bide nabarmenetik aurrera segi eta parez pare, Olhadübiko arroila zeharkatzen duen Holtzarteko zaldaina edo zubia ikusiko dugu. Euskal Herrian dugun altxor preziatu hau, paraje ezin ederragoan eskegitzen da. 1920an, Lombardi Morello Atharratzeko altzairu-lantegiko langile italia-

rrek eraiki zuten, bertako basotik egurra atera ahal izateko. Hasiera batean, egurra garraiatzeko zubi txiki bat eraiki zuten ohol eta kablez lagundurik. Zuberotarrek Holtzarteko zaldaina deitzen diote, baina egiari zor, zubia Olhadübiko arroilaren gainean kokatzen da.

Holtzarteko zaldaina edo zubia, bertako basotik egurra ateratzeko eraiki zen

Zubi txundigarria gurutzatu eta, GR-10aren bide-seinale zurigorriek erakusten diguten norabidean jarraituko dugu. Oihanean hedatzen den bidetik hiru kilometro pasatxo bete

Holtzarteko zubia





Holtzarteko zaldaina · ARGAZKIA: PAULO ETXEBERRIA

eta gero, Olhadübiko pasabidera helduko gara. Arroilaren beste aldera igaro eta, udako larre malkartsuetan marrazten den bidezidorretik Ardakotxüko zelai edo lepora igoko gara. Laster, GR-10ak eskuinera egiten du, guk, berriz, aurrera jarraituko dugu. Orain marra horiak izango ditugu bidelagun. Altuera galtzen hasi, ezker aldean Latsagako bordak utzi eta bidegurutza ailegatzean, ezkerretik, bide-seinaleek erakusten diguten norabidean jaisten jarraituko dugu. Basotik ateratzean, jaitsiera azkar eta biziak abiapuntura eramango gaitu.

MÜRÜXE

LUZERA: 4,6 km | DESNIBELA: 402 m
DENBORA: 2 ordu 15'

Zuberoako Basabürüa eskualdean kokatuta dagoen Urdax edo Santa Grazi herriaren historia, bertan dagoen eliza erromanikoari era-

bat lotuta dago. Erreferentziarik zaharrenaren arabera, Urdatxen 12 kalonjedun kolegiata bat zegoen, Antso V.a herrialdeaz jabetu eta kolegiata Leireko monasterioaren esku utzi zuen arte. Gaur egun eliza da ikusgai geratzen den ondare bakarra. Gertu, bisitari asko jasotzen dituen Kakuetakko arroila ikusgarriaz gain, hain ezaguna ez den Ehüjarrekoa ere ezagutu dezakegu. Ibilaldi labur eta erraz hau burutuz gero, Ehüjarre eta Arpideko arroilen ikuspegi paregabea izango dugu.

Elizaren ondoko etxe multzoa osatzen duten Santabürüa (Senta) auzotik abiatu, D 113 errepidea zeharkatu eta laborantzako erai-kin baten ondok igaro ondoren, Elixagaraia etxea ikusiko dugu eskuin aldean. Bide zabalak, berehala gerturatuko gaitu Aizesagardo bordaren ondora. Bidegurutza ailegatzean, aurrera jarraituko dugu bide-seinaleek erakutsiko diguten norabidean. Otadian marrazten den lurrezko bidean barrena gorantz

joko dugu altuera irabaziz. Ote eta garoz es-talitako lurren artetik ibiliz, bide-seinale horiek belardi piko batera bideratuko gaituzte. Iparralderantz jarraituz, gertu izango dugu Arbotiko oihana, baina laster bide-seinaleek norabidez aldatu eta ekialderantz zuzenduko gaituzte. Mürüxera iristean (pago batean egurrezko ohola izenarekin), haran osoaren ikuspegi zabala izango dugu. Aurrez aurre, Ehüjarre arroila, Ütziako oihana eta Ganagerreko basoen artean irekitako "zauri" luzea. Arpidea da ikusiko dugun bigarren arroila, baina hau, batik bat ezaguna da bertan aurkitzen delako La Verna kharbea edo leize-zuloa.

Santa Grazi herriaren historia, bertan dagoen eliza erromanikoari erabat lotuta dago

Abiapuntura itzultzeko, ekialderantz hedatzen den bidetik joko dugu garo artean. Pare bat errekasto zeharkatu eta gero, bidegurutze batera helduko gara. Ülünagerre puntara doan bidea ezkerrean utzita, hego-mendebalderantz jaisten jarraituko dugu, Elixagaraia etxearen ondoraino. Azken zatia, igotzeko erabili dugun bide beretik beteko dugu.

Santa Graziko eliza erromanikoa





Aguerria baserria eta haritz itzela

PETTARRA

Pettarra (edo Barhoa) Zuberoako eskualdea da, eta bere lurak herrialdearen iparraldean hedatzen dira. Zuberoako alderik lauena da, eta muino batzuk baizik ez dira, ekialdean batez ere.

MITIKILE-LARRORI

LUZERA: 7,8 km | DESNIBELA: 210 m
DENBORA: 2 ordu 30'

Herriko frontoiaren ondoan dagoen aparkalekutik abiatuko gara, behean eliza utziz. Ipar aldera jo eta berehala, errepidearen ondoan "Larriori" jartzen duen lehen bide-seinalea ikusiko dugu. Itzulia erabat balizaturik dago eta ez dago galtzeko arriskurik. Bide bazterretik hirurehun bat metro bete beharko ditugu Larriorira zuzentzen den bidearekin topo egin arte. Hemen seinale horiak ikusiko ditugu eta, apenas trafikorik ez duen errepide estutik aurrera egingo dugu. Etxe batzuen ondotik igaro eta Aguerria baserriaren ondoan dagoen haritz erraldoia ikusi ahal izango dugu.

Gorabehera txiki batzuk pasa ostean, Oreinen Oihanaren ondora helduko gara. Etxe gutxi batzuk osatzen duten auzo honetan kapera zahar bat ikusiko dugu eta inguruan duen hilerrri txikian hilarri zahar batzuk dauka. Bideak beherantz egiten du eta Etcheberry baserri mardularen ondora iristerako aldapan gora izango gara. Pare bat etxe eskuinean utzi eta azken malda pikoari ekingo diogu Sagar-doyburuko bidegurutzera iristeko. Haritz, gorosti eta gaztainen artean zabaltzen den pista amaitu eta bidezidor bihurtzean, sasi eta garo artean marrazten den xendatik aurrera egingo dugu.

Zerga-gehiegikeriaren aurka altxatu ziren laborari zuberotarrak, Matalas buru zutela

Pista eroso da eta tarteka haritzetatik eskegita usategiren bat edo beste ikusiko dugu eta, hauen ondoan, ehizarako erabiltzen diren mekanismo berezi eta bitxi batzuk. Basotik

ateratzean Mitikiletik oso gertu gaudela ohar-tuko gara. Bide-seinaleak jarraituz aurrera egingo dugu, baina abiapuntura iritsi aurretik, eskuinera joko dugu, baserri-dorre berezi batera zuzentzen den lekutik. Etxea hori kolorekoa da eta seinalerik ez badago ere, Matalasen jaiotetxea da. Bernard Goienetxe apaiz zuberotarra Mitikilen jaiotzen, ez dakigu zein urtetan eta lepoa moztuz Lextarren hil egin zuten 1661ean. Apaiz ikasketak Bordelen burutu zituen eta bere herriko erretore izan zen nobleen aurkako matxinada piztu zen arte. Frantziako erregeak ezarritako neurri zentralistagoek Zuberoako foru eta eskubideen murrizketa ekarri zuen. Herri-lurak desjabetu eta salgai jarri zituen nobleen artean banatzeko asmoz. Honen guztiaren eta zerga-gehiegikeriaren aurka altxatu ziren laborari zuberotarrak, Matalas buru zutela. Kondairak dienez hauek izan ziren bere azken hitzak: "Dolü gabe hiltzen niz, bizia Xiberuarentako emaiten baitüt. Agian, agian, egün batez jeikiko dira egiazko xiberutarrak, egiazko eskualdünak, tirano arrotzen ohiltzeko". Honen ondotik elizara jaitziko gara abiapuntura itzultzeko.